

zakilixut

© Olariagak



Nafarroako Unibertsitate Publikoa 10:32 (a.m.)

Koldo Alduntzin | NUARBE

ATZEOZ AURRERA

E saldi biribil horrek hartu zuen igande egun osoz Nuarbera (Gipuzkoa) hurbildu zen oro. Goizeko 08:00etan hasi zen Azpeitiko auzo herri bihurtuan jendearen harat eta honako joan-etorria, herri koskorra izan arren. Lehenik, ordea, gosari legea egin zuten garai bateko otar edo saskigileek, baratxuri zopa janda; betiere, dianaren ondoren. Handik aitzin, lau belaunaldiko saskigileak lanean jarri zituen



KOLDO ALDUNTZIN

Lau belaunaldiko saskigileak aritu ziren saski erraldoia egiten.

Nuarbe Sokatira Taldeak. Eta zergatik saskigileak eta sokatirariak elkarlanean, festagirotan? Herri-auzo horretako bizitza izan eta delako. Saskigintza 60 lagunen bizibidea izatera heldu zen, orain dela mende bat pasatxo finkatzen hasi zenetik. Sokatira, berriz, joan deneko 25 urteotan Nuarbe taldeak tinko diharduelako arrakastaz arrakasta.

Talde horren 25. urteurrena ari dira ospatzen, eta herenegun

izan zuten ospakizunaren bihotza. Urte horietan taldearekin zerikusia izan duten gehienak bildu ziren, eguzki goxoaren mainderepean. Hamaiketakoaren garaian, biziki eskertzekoa izan zen haragi egosiaren otartekotxo eskaini zuenaren presutasuna; giroarekin bat eginda, gurdixka batean baitzeramatzan otartekotxoak, zumitzen gainean. Hain justu, gaztainondo zumitzak ari ziren bata bestearekin lotzen txukun-txukun tarte handirik utzi gabe. Gune batean lau kide ari ziren otarra egiten, eta tartean, Joxemari Etxeberria. 80 urte dituela, oraindik ere otarrak egiteko trebetasun aparta erakusten du, eta zeresanik ez, azalpenak emateko. «Ikusten duk, hau haritz zumitza duk». Saski gehienak gaztainondo gazte eta malguz eginikoak dira, «baina Etxeberriak beti asmatzen du zerbait», aipatu zuen Luismari Gurrutxaga Nuarbe Sokatira Taldekoak. «Garai batean makina bat kamioikada saski atera zuan hemendik, gehienak arrantza edo mahasgintzarako; herri osoa egoten zuan saskiz beteta».

Orain, bi saskigilek dihardute langintza horretan. Eguneke egitarauan saski erraldoi bat egiteko erronka ere ezarri zuten nuarbetarrek, eta baita egin ere. Bi metro eta erdi zen luzean eta bat zabalean. Goiza igaro ahala, garai bateko eta egungo sokatirariak herrira heltzen hasi ziren, batzu-batzuk lanean ere dezentet jardun zutelarik. Nazioartean 30 domina irabazita, aski merezia dute nuarbetarrek ospakizuna; hori bai, era xumean egin eta berek antolatuta, emazte eta ingurukoen laguntza eskergarriarekin. Meza, musika eta bertsoak izan ziren osagarri, eta jakina, bazkari erraldoia (400 bazkaldar), talde erraldoi baten omenez; ea gutxi jota Mutrikuren parera (30 urte) heltzen den.

25 urte, 25 neke, baina... hamaika urre!!!

Nuarbe Sokatira Taldea 25. urteurrena ari da ospatzen, eta igandean, saskia eta soka uztartu zuten festa ospakizunean



JUAN KARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Sokatira taldearen 25 urteak biltzen dituen erakusketa jarri dute Nuarben. Tiralarien omenezko eskultura dago bertan.